

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen: Nota: 

<b>motots</b>	..larruazal beltzarana zuen, eta sorbaldetarainoko <b>mototsa</b> zeraman kasaka urdinaren gainean.
<b>kasaka</b>	..larruazal beltzarana zuen, eta sorbaldetarainoko mototsa zeraman <b>kasaka</b> urdinaren gainean.
<b>azkazal</b>	Eskuak arrakalatuta eta orbainez beteta, eta <b>azkazal</b> beltzak eta apurtuak zituen...
<b>xarmagarri</b>	Baso bat ron eskatu behar diot mutil <b>xarmagarri</b> honi...
<b>mahuka</b>	Sendagileak <b>mahuka</b> urratu zion, eta besaurrean, besteak beste, honako hitz hauek agertu ziren tatuatuta: "Billy Bones".
<b>urratu</b>	Sendagileak mahuka <b>urratu</b> zion, eta besaurrean, besteak beste, honako hitz hauek agertu ziren tatuatuta: "Billy Bones".
<b>eseki</b>	<b>Esekita</b> izango du, beharbada xuxurlatu zuen amak.
<b>lakre</b>	Bi gauza zeuden barruan: liburu bat eta paper bat, <b>lakrez</b> itxita.
<b>orro</b>	Gero, beste bat entzun zen, eta, azkenean, amaierarik gabeko <b>orro</b> izugarria.
<b>pikotxa</b>	Hemen duzu <b>pikotxa</b> eta pala, Benjamin Gunn. Gera zaitez hemen, eta bilatu zeuk bakarrik Flinten altxorra.
<b>doilor</b>	Sei <b>doilorrak</b> brankako gazteluan zeuden, oihal baten azpian.
<b>prestu</b>	Rona edatearren ere ez nintzateke zu zoazen tokian sartuko, harik eta zure jaun <b>prestu</b> hori ikusi eta berak ohorezko hitza eman arte.
<b>birao</b>	<b>Birao</b> izugarria bota eta errenka joan zen...
<b>etsi</b>	...lur jabea kapitainari <b>eusten</b> ari zen.
<b>zangomami</b>	...balak <b>zango mamiko</b> gihar batzuk baino ez zizkion urratu.
<b>harkaitz</b>	Gauetz ikusi nuen <b>harkaitz</b> zuriaren bila joango nintzen...
<b>sastraka</b>	...eta inguru hartan ugari hazten zen <b>sastraka</b> sendoak eta dunek estaltzen zuten...
<b>lauso</b>	...itsasontzia non zegoen erakusten zuen argi <b>lausoa</b> .
<b>krosko</b>	Gero apurka-apurka mastak eta <b>kroskoa</b> agertu ziren...
<b>apar</b>	... <b>aparrak</b> behin eta berriz bustitzen ninduen...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>antzina</b>	Bestela hilda egongo nintzen <b>antzina</b> .
<b>harrigarri</b>	Hala ere, <b>harrigarria</b> zen txalupatxoa uhinen artean nolako segurtasunez eta bizkortasunez mugitzen zen ikustea...
<b>haizebeko</b>	Horrela, txopako bizkarreko <b>haizebeko</b> alde ahal izan nuen.
<b>murgildu</b>	Azalera atera zen, apar eta odolezko zurrumbilo batean; baina berriz <b>murgildu</b> zen...
<b>dardar egin</b>	<b>Dardar egin</b> nuen, bat-batean, eta dardara horrek konpondu zuen arazoa.
<b>txingar</b>	Gorria eta beroa zen eta, noizean behin, ilundu egiten zen, suaren <b>txingarren</b> moduan.
<b>zorrotz</b>	Eta, orduan, bat-batean, oihu <b>zorrotza</b> atera zen iluntasunetik...
<b>ezusteko</b>	<b>Ezusteko</b> pozgarria, bai horixe, John zahararentzat!
<b>tratua egin</b>	«Ondo», esan zuen sendagileak, « <b>tratua egin</b> behar dugu».
<b>kai</b>	<b>Kaian</b> nengoen, eta, halabeharrez, berarekin hasi nintzen hizketan.
<b>loria</b>	Itsasoaren <b>loria</b> , eta ez altxorra, igo zait burura!
<b>senadi</b>	Biharamunean, agur egin nien amari, jaiotzatik bizi izan nintzen <b>senadiari</b> eta gure ostatu zahar eta maiteari...
<b>zerraldo</b>	<b>Zerraldo</b> lo egin nuen, antza; izan ere, esnatu nintzenean, eraikin handi baten aurrean geunden.
<b>aldaka</b>	Ezkerreko zangoa <b>aldakatik</b> hurbil moztuta eta ezkerreko sorbaldaren azpian makulu bat izan arren...
<b>girgilu</b>	Ondo dago, horrela ez diogu <b>girgilurik</b> ipini beharko.
<b>erreal</b>	Eta loroak “zortziko <b>errealak!</b> , zortziko errealak!, zortziko errealak!” esaten zuen behin eta berriz.
<b>mardul</b>	Bat-batean, gizon <b>mardul</b> batek upelaren kontra jarri zuen sorbalda.
<b>mirespenez</b>	...oihu egin zuen beste ahots batek, itsasontziko marinelik gazteenarenak, <b>mirespenez</b> .
<b>galbideratu</b>	...eta elkarrizketa hura, berriz, itsasontziko azken marinela leialetako bat <b>galbideratzeko</b> baino ez zen izan.
<b>atoian</b>	...txalupak jaitsi eta itsasontzia <b>atoian</b> eraman beharra izan genuen hiruzpalau miliatan...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>mutina</b>	<b>Mutina</b> gainean genuen, ekaitza balitz bezala.
<b>estropezuka</b>	...barrurantz abiatu nintzen korrika eta <b>estropezuka</b> , saltoak emanez, makurtuz, gehiago ezin izan nuen arte.
<b>uhindu</b>	Inguru zingiratsua zeharkatuta nuen, eta leku ireki, <b>uhindu</b> eta hareatsuan agertu nintzen.
<b>lagatu</b>	...lagunak itsasontzian <b>laga</b> nituen, eta nire aurrean zuhaitzak, animaliak eta hegaztiak baino ez zeuden.
<b>nerabe</b>	1881eko goiz euritsu batean, Loyd Ousborne, hamahiru urteko <b>nerabe</b> egonezin eta pinturazalea, uharte baten marrazkia akuarelaz margotzen ari zen.
<b>labar</b>	Astiro-astiro edan zuen, ulertuen eran dastatuz, eta <b>labarretara</b> begira jarraitu zuen.
<b>lorrindu</b>	Egia esan, arropa <b>lorrinduak</b> eta hizkera arrunta izan arren...
<b>penny</b>	Eta zilarrezko lau <b>penny</b> emango zizkidala agindu zidan.
<b>goibel</b>	Egun hartan, aita oso <b>goibel</b> zegoen, eta giro baketsua behar zuen.
<b>madarikatu</b>	...sendagile <b>madarikatu</b> horrengana, eta esaiozu gerrarako prestaketa agintzeko...
<b>kolokan</b>	Salto egin eta berehala, <b>kolokan</b> hasi zen.
<b>muino</b>	Txistu-hotsa entzun zen <b>muinoan</b> .
<b>amorr</b>	...itsuak aginduak ematen jarraitu zuen, lehen baino ozenago, egonezinak eta <b>amorr</b> ak erreta balego bezala.
<b>koldar</b>	—Zoaz zeu, <b>koldar</b> hori! Dirutza duzue esku artean.
<b>lauoinka</b>	Lauzpabost zaldizko agertu ziren Ilargiaren argitan, <b>lauoinka</b> aldapan behera.
<b>triskantza</b>	Nolako <b>triskantza</b> aurkitu nuen; ez zarete gauza imajinatzeko ere!
<b>neskame</b>	<b>Neskameak</b> esan zigunez, Trelawney lur-jabearen etxera joan zen afaltzera eta gaua pasatzera.
<b>ikuskatzaile</b>	<b>Ikuskatzaile</b> berriak azaldu eta gero, hau esan zuen lur-jabeak...
<b>haize-oihal</b>	Neure begiekin ikusi ditut haren <b>haize-oihalak</b> .
<b>almirante</b>	Ni <b>almirantea</b> izango naiz.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>itsasaldi</b>	...lur-jabeak uste baino denbora luzeagoa behar izan zuen <b>itsasaldia</b> prestatzeko.
<b>txundigarri</b>	...eta abentura <b>txundigarriak</b> izaten nituen uharte bitxietan
<b>branka</b>	<b>Brankako</b> irudirik zoragarrienak ikusten nituen.
<b>kontramaisu</b>	...goleta batean nabigatuko nuen, <b>kontramaisuarekin</b> eta motosdun marinelekin batera.
<b>orga</b>	Jende, <b>orga</b> eta fardel askoren artean ibili nintzen eta, azkenean, aurkitu nuen tokia.
<b>susmoa izan</b>	... <b>susmoa</b> nuen gure ostatu zaharrearaino hain luzaro zelatan egonda ikusi nuen hanka bakarreko marinela ote zen.
<b>jakingura</b>	...bertan geratu nintzen, dardarka eta adi, beldurrez beterik baina <b>jakingura</b> piztuta.
<b>lemazain</b>	...lema gobernatzen duen marinela —erantzun zuen Israel Hands <b>lemazainak</b> .
<b>zuhur</b>	...mutil adorea eta <b>zuhurra</b> zara!
<b>igarobide</b>	eskeleto uhartearen atzeko <b>igarobide</b> estetik joan behar izan genuen ainguralekura
<b>amen batean</b>	...bururatu zitzaidan neu ere lehorrera joatea, eta, <b>amen batean</b> itsasontzitik irristatu eta hurbilen izan nuen txaluparen aurrealdean ezkutatu nintzen.
<b>noraezean</b>	...nire bizitza osoan baino bizkorrago mugitu nintzen, <b>noraezean</b> joanez.
<b>oihartzun</b>	...une hartan, eguzkia estaltzeko ordubete edo bi falta arren uharte osoak egin zuen orro kanoikada baten <b>oihartzunez</b> .
<b>matxino</b>	...itsasontzian geratu ziren sei <b>matxinoei</b> eraso egin, aingura jaso eta itsaso zabalera joko genuen.
<b>ganbera</b>	<i>Hispaniola</i> -ko <b>ganberan</b> , behar ziren armak, munizioak, jatekoak...
<b>goleta</b>	...Hunter arraunlari ona zen, eta hegan egin genuen uraren gainean, <b>goletara</b> iritsi ginen arte.
<b>amarru</b>	—Baietz zital horren <b>amarruren</b> bat izan!
<b>soropil-hutsune</b>	Horren azpian, <b>soropil-hutsune</b> oso txikia zegoen...
<b>likatsu</b>	Gero, itzelezko munstro <b>likatsuak</b> ikusi nituen...
<b>olana</b>	<b>Olana</b> zuri eta ederra elurra edo zilarra bezain distiratsu ageri zen.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>kinatu</b>	Planak abentura-usaina zuen; horrek <b>kinatu</b> egin ninduen...
<b>zurrun</b>	...ahoz gora zegoen, <b>zurrun</b> , besoak zabalik, gurutzearenak bezala...
<b>marmar egin</b>	<b>Marmar egin</b> zuen, edo, hobeto esanda, zaunka...
<b>lema</b>	Gero, <b>lema</b> lotu nuen, eta behera joan nintzen nire kuxtaren bila...
<b>geriza</b>	Traizioaren <b>geriza</b> ikusten nuen haren begietan...
<b>porto</b>	— Ardoa? Ados —esan nion—. <b>Portoa</b> ekarriko dizut, Hands jauna.
<b>hondarpe</b>	...Hands piloto oso ona zela: segurtasunez eta erraz pasatu ginen <b>hondarpeen</b> artean.
<b>gurutze</b>	...eta ez nuen arnasarik atera <b>gurutzean</b> eseri arte.
<b>aizto</b>	Berehala gelditu zen, eta, listua irentsiz, hau esan zuen <b>aiztoa</b> ahotik aterata...
<b>gori</b>	Aiztoak burdin <b>goria</b> balitz bezala erretzen ninduen...
<b>oholesi</b>	<b>Oholesira</b> bueltatzea eta nire balentria azaltzea baino ez nuen gogoan.
<b>zurrunga</b>	Hurbildu nintzenean, lasaitu egin nintzen: nire lagunen <b>zurrungak</b> , bake osoan lotan zeudela...
<b>zuzia</b>	—Ekarri <b>zuzia</b> , Dick —esan zuen Silverrek.
<b>adore-plantak</b>	...Silverri begira eta <b>adore-plantak</b> egiten; baina bihotza erabat etsita nuen.
<b>zorigaiztoko</b>	Sendagilea bera ere zure kontra dago. « <b>Zorigaiztoko</b> doilorra» zinela esan zuen.
<b>dingilizka</b>	Hala ere, <b>dingilizka</b> ikusten nuen neure burua.
<b>berotuta</b>	—Orduan gauza pare bat esan behar dut —esan nuen nik, ordurako nahiko <b>berotuta</b> ...
<b>makulu</b>	Inor ausartzen bada, sable bat har dezala, neure <b>makulu</b> eta guzti gibela zer koloretakoa duen ikusi behar dut eta.
<b>aitzakia</b>	Bata bestearen atzetik, aurretik igarotzean agur bat egin eta, <b>aitzakiaren</b> bat eman, hitz egin zuenaren atzetik joaten hasi ziren guztiak.
<b>zurrutada</b>	<b>Zurrutada</b> bat behar dut, arazoak datoz eta.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

**bahituta**

Mutila **bahituta** dugu eta gure azken aukera izan daiteke.

**huskeria**

...zuentzat, agian, **huskeria** izango da benetako sendagilea egunero zuek ikustera etortzea.

**erein**

**Erein** duzuna biltzen ari zara.

**amore emate**

—Hori da nire lehenengo **amore ematea**.

**urkamendi**

...**urkamenditik** ihes egite hutsa baino, eta bazekien gugandik ez zuela besterik lortuko.

**gailendu**

Noizean behin, beste espezie bateko beste zuhaitz garaiago bat **gailentzen** zen...

**dobloi**

Hauxe da iparrizarrera eta zorioneko **dobloietara** eramango gaituen orratza.

**hotzikarak izan**

**Hotzikarak ditut** Flintengan pentsatuta bakarrik.

**zurbil-zurbil**

**Zurbil-zurbil** geratu ziren sei itsaslapurrak...

**suspertu**

**Suspertzen** ari zirela, lehengo ahotsa entzun zen berriz ere.

**txopa**

Darbi, ekarri rona **txopara!**

**uxatu**

Hurbildu ahala, diruaren pentsamenduak **uxatu** egin zituen ordura arteko beldurrak.

**herrenka**

Silver **herrenka** zihoan makuluaren gainean.

**suminduta**

**Suminduta** tiratzen zuen sokatik, eta, noizean behin, biratu.

**kirten**

Pikotx baten **kirtena** ageri zen, hautsita, eta hainbat kaxaren oholak, han eta hemen sakabanatuta.

**zirkinik egin**

Silverrek ez zuen zirkinik egin; besteei begira zegoen, eta beti bezain lasai ageri zen.

**ketan**

Une hartan, sendagilea, Gray eta Ben Gunn heldu ziren, zuhaitz artetik aterata, mosketeak **ketan** zituztela.

**hornituta**

Izan ere, Ben Gunnen kobazuloa ondo **hornituta** zegoen...

**adeitsu**

Gure lehenengo bidaiako marinel atsegin, **adeitsu** eta esanekoa zen berriz ere.

**halabeharrez**

Kaian nengoen, eta, **halabeharrez**, berarekin hasi nintzen hizketan.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>zin</b>	...neure esku dagoen guztia egingo dut, gezurrezko <b>zina</b> izan ezik, zeure bizia salbatzeko.
<b>harrezkero</b>	<b>Harrezkero</b> , belaunaldi askoren abentura-ametsak sustatu ditu eleberri honek.
<b>sustatu</b>	Harrezkero, belaunaldi askoren abentura-ametsak <b>sustatu</b> ditu eleberri honek.
<b>ezizen</b>	...Daniel Defoe egon zitekeen <b>ezizen</b> horren atzean.
<b>arpilatu</b>	...itsaSontziei ez ezik hiriei ere eraso egin eta <b>arpilatu</b> egiten zituzten.
<b>itsasketa</b>	Beharrezko datu guztiak zituen, beraz, marinelen eta <b>itsasketaren</b> mundua zehatz deskribatzeko...
<b>osteratxo</b>	...kapitainak bere <b>osteratxo</b> a egin ondoren gosaltzeko.
<b>jazo</b>	Handik nahiko gutxira, gertaera misteriotsu bat <b>jazo</b> zen...
<b>jo</b>	—Tira —esan zuen berak—, <b>jo dezagun</b> , zerbait esatearren, zure kapitain horrek masailean ebaki bat duela...
<b>aiene</b>	Aulkiak eta mahaia biraka, ezpaten talken hotsa, eta, gero, <b>aiene</b> lazgarriak.
<b>atximur egin</b>	Ez ahaztu nire hitzak: «Askoz konfiantza handiagoa» esan behar diozu, «askoz handiagoa», eta, gero, <b>atximur egiozu</b> .
<b>fardel</b>	Jende, orga eta <b>fardel</b> askoren artean ibili nintzen eta, azkenean, aurkitu nuen tokia.
<b>ezponda</b>	...ez nintzen gauza izan neure tokian gelditzeko, eta <b>ezpondan</b> gora igo nintzen.
<b>balentria</b>	Oholesira bueltatzea eta nire <b>balentria</b> azaltzea baino ez nuen gogoan.
<b>pattar</b>	Txerriki pixka bat jan eta edalontzi bat <b>pattar</b> edan ostean, hiru buruzagiak bazter batean bildu ziren...
<b>inausita</b>	Kapitainak, bitartean, moztuta eta <b>inausita</b> zegoen izei oso garaia aurkitu zuen.
<b>itsaslapur</b>	Stevensonek <b>itsaslapurrez</b> , lurpean ezkutaturiko altxorrez eta bertan behera utzitako marinel batez osatu zuen marrazkia.
<b>haztamuka</b>	Aurrera egin nuen, <b>haztamuka</b> , ez zen ezer ikusten.
<b>makalik</b>	Behin bakarrik egin zion aurre norbaitek; amaierako egunetan gertatu zen, aita <b>makalik</b> zegoela.
<b>zital</b>	Baietz <b>zital</b> horren amarruren bat izan!

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>akuarela</b>	...Lloyd Ousborne, hamahiru urteko nerabe egonezin eta pinturazalea, uharte baten marrazkia <b>akuarelaz</b> margotzen ari zen.
<b>orbain</b>	Eskuak arrakalatuta eta <b>orbainez</b> beteta, eta azazkal beltzak eta apurtuak zituen...
<b>aitortu</b>	Hemen zaudenez, gauza bat <b>aitortuko</b> dizut.
<b>eraile</b>	...atzean, <b>eraileak</b> zeuden, eta, aurrean, zelatan zegoen izaki hura.
<b>desertatu</b>	Neu naiz, Smollet kapitaina. Mutil gaixo horiek kapitain izendatu ninduten <b>desertatu</b> ondoren, jauna...
<b>gorpuzkera</b>	Lehenengoz ikusten nuen jaun hura hain hurbiletik. Gizon garaia eta eta <b>gorpuzkera</b> onekoa zen...
<b>kulunkatu</b>	...pinuak <b>kulunkatzen</b> hasi ziren, haien artean zebilen haize kirriaren eraginez.
<b>anker</b>	Beldurgarrienak itsaslapurraren istorioak ziren; urkatuei, [...] eta Karibeko gertaera <b>ankerrei</b> buruzko kontakizun izugarriak.
<b>purrustadaka</b>	...labana gorde eta jarlekura itzuli zen <b>purrustadaka</b> , txakur makilatua bezala.
<b>arakatu</b>	Bill hilda dago! <b>Araka</b> dezala batek.
<b>kirri</b>	...pinuak kulunkatzen hasi ziren, haien artean zebilen haize <b>kirriaren</b> eraginez.
<b>izututa</b>	...hala ere, azken horietako bat <b>izututa</b> zegoen zaurituta baino gehiago...
<b>apatx</b>	Itsu gaiztoak oihu lazgarria egin zuen, zaldiaren lau <b>apatxak</b> gainetik pasatu zitzaizkionean.
<b>txilibitu</b>	... <b>txilibitua</b> poltsikotik atera eta hainbat bider jo zuen.
<b>sable</b>	<b>Sable</b> bat hartu eta argitara atera nintzen.
<b>aingura</b>	...sei matxinoei eraso egin, <b>aingura</b> jaso eta itsaso zabalera joko genuen.
<b>ameskeria</b>	Baina benetako gauza bitxia eta tragikoa geroago gertatu zitzaigun; nire <b>ameskerietan</b> ere ez halakorik gertatu.
<b>lur jota</b>	<b>Lur jota</b> aurkitu nituen guztiak. Lur jabea zurbil zegoen, nolako zoritxarreraren eraman gintuen pentsaturik.
<b>iltzatuta</b>	Ezezaguna <b>iltzatuta</b> geratu zen ostatuko atearen ondoan.
<b>makilatu</b>	...labana gorde eta jarlekura itzuli zen purrustadaka, txakur <b>makilatua</b> bezala.